

IKASTOLAK

269

Herri bat
euskaraz josten



Argitaratzailea

EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK
Errotazar bidea 126
20018 DONOSTIA
943 44 51 08

Argitaratze data

2026ko ekaina

Koordinazioa

Andoni Mikelarena eta Amaia Lasa

Testuak

Koldo Aldabe

Diseinua

Iker Torres

Argazkiak eta ilustrazioak

Aritz Trueba

Inprimatzailea

GERTU inprimategia
Oñati. Tel.: 943 78 33 09

Lege gordailua

SS 425-2015

Paper %100 birziklatuan
eta ekologikoan inprimaturiko alea

AURKIBIDEA

HARIAN

04 GURASOAK, EUSKARAREN
TRANSMISIOAN GILTZARRI

SAKONEAN

10 BIHARKO
EUSKAL HEZKUNTZA,
GAURDANIK EHUNTZEN

SOLASEAN

14 JAIK 'GU' BAT ERAIKITZEN
DU HERRIAN, IKASTOLAREN
INGURUAN KOMUNITATEA
JOSIRIK MANTENTZEN DU

IKASTOLAN

22 ETIKASI 2026 SARIA

24 BARDEETAKO XX. ORIENTAZIO
ETA BIZIKLETA MARTXA

26 TULALAIKA

28 BIRZIKLANET, TEKNOLOGIA
BERRERABILIZ ELKARTASUNA
SARETZEN DUEN PROIEKTUA

PLAZAN

31 HITZ ETA JOLAS
OPORRETAN





Gurasoak, euskararen transmisioan giltzarri

Egungo testuinguru soziolinguistikoan, familia da gure seme-alaben euskalduntze-prozesuaren benetako bihotza. Ikastolen Elkartek antolatutako **online saio hauek** ez dira informazio hutsak; gurasoontzako **gida estrategiko bihurtu dira**, gure eguneroko zalantzei erantzun zientifiko eta praktikoa emanez. Saio hauek arrakasta itzela izan dute, eta orain **Ikastolen Elkartearen YouTube kanalean ditugu eskuragarri**, gure heziketa-ibilbidean erreferentziazko tresna izan daitezten.

4 HARIAN



Kike Amonarriz



Paula Kasares

Paula Kasares eta Kike Amonarriz adituek helburu argi bat markatzen digute: gurasook "motore" eta "eredu" aktibo bihurtzea. **Hizkuntza ez da ikasgelan soilik bereganatzen den kode bat**; haurraren "larruazal linguistikoa" da. Kasaresek dioen bezala, hizkuntzan eroso sentitzea, behar oro euskaraz asetzeko gai izatea, segurtasun eta autoestimu iturri ikaragarria da haurrarentzat. Bide horretan, euskara gure seme-alaben azala eta babesa izan dadin, **ezinbestekoa da transmisioaren inguruko mitoak deseraikitzea** eta gure erantzukizuna geure gain hartzea.



Hizkuntza transmisioaren mitoak eta errealitatea

Askotan, gure beldurrak eta inertzia ez-eraginkorrak hizkuntzaren inguruko "ideia desegokietan" oinarritzen dira. Mito hauek haustea da lehen urratsa, guraso gisa ditugun aurreiritziak alde batera utzi eta segurtasunez jokatzeko.

Hona hemen Paula Kasaresek nabarmendutako hiru mito nagusiak:




Hizkuntza berez eta zaindu gabe ikasten da.

Errealitatea: Genetikoki prest gauden arren, prozesua ez da automatikoa; elikatu egin behar da. Transmisioak proaktiboa izan behar du: haurrari euskaraz mintzarazi (deskribatu, kontatu, arrazoitu) eta erabilera-irizpide kontzienteak hartu behar ditugu gure agendan (telebista, eskolaz kanpokoak, aisialdia).



Haurrak soilik berari zuzenean egiten zaionetik ikasten du.

Errealitatea: Haurrak etxeko "elkar bizitza linguistiko" osoa xurgatzen du. Gaur egun, espazio komunikatiboak asko ahuldu dira; maiz gurasoak pantailara begira isilik gaude sukaldean. Gure arteko harremanak, dendan agurtzeko moduak edo telefonoa hartzeko hizkuntzak definitzen du haurraren eredua.



"Ama hizkuntza" bakarra eta aldaezina da.

Errealitatea: Baldintza egokietan, haur batek bi ama-hizkuntza izan ditzake. Hori posible da guraso euskaldunak kontsekuentziaz eta intentsitate handiz jokatzeko badu, euskara harreman-hizkuntza gisa hasieratik finkatuz.

Zergatik da garrantzitsua hau?

Euskara berez ikasten dela edo eskolaren kontua soilik dela pentsatzeari (mitoak) utzi behar diogu. Ikuspegi oker horiek alde batera uzten ditugunean, gurasoek errudun sentitzeari uzten diote (ingurua erdalduna delako, adibidez) eta ekiteko boterea hartzen dute. Gure seme-alaben bizitzako esparru guztietan —etxean, aisialdian, pantailetan— euskara egon dadin ziurtatzea ez da aukerako zerbait, haien segurtasun emozionalerako ezinbesteko oinarria baizik.

Gurasoak motor eta eredu gisa

Kike Amonarrizek hausnarketa sakona egiten du: askotan, ikastetxeek “euskara irakastearekin” nahikoa dutela senti dezakegu. Baina ikasleek euskara ikasgai gisa soilik ikusten badute, ez dugu lortuko haiek hitzun aktibo izatea. Gurasoen “motor” funtzioa da zubi hori eraikitzen duen bakarra: ezagutzatik erabilerara dagoen tarte.

Amonarrizek gogorarazten digu gure helburua ez dela euskara irakatea soilik, haurra gizartean euskaldun gisa sozializatzea baizik.

Guraso gisa, gure motibazioa eta interesa partekatzea funtsezkoa da. Haurrak sentitu behar du guretzat garrantzitsua dela bera euskaldun izatea. Horrek ematen dio zentzua eskolan ikasten duenari.





Estrategia praktikoak familia-eremuan

Familia bakoitzaren egoera desberdina da, aipatzen dute bi adituek, eta horren arabera egokitu behar dugu gure jarduna:

Familia euskaldunak:


Gakoa kontsekuentzia eta koherentzia dira. Inguruan erdaldunak daudenean ere, haurarekin euskarari eustea funtsezkoa da. Deserosotasunak ekiditeko, azaldu ingurukoei zergatik egiten duzun: "niretzat garrantzitsua da haurrak nirekin duen harremana euskaraz identifikatzea".

Familia bitarikoak (guraso bat euskalduna):

Gaztelaniaren inertzia soziala oso indartsua denez, guraso euskaldunak intentsitate eta proaktibitate berezia behar du. Haurarekin bakarrik dagoen uneak aprobetxatu behar ditu euskara intentsitatez elikatzeke.

Familia erdaldunak:

Zuen rola motor gisa ezinbestekoa da. Lorpenak txalotu, interesa erakutsi eta euskararekiko begirunea transmititzea da biderik indartsuena.



7 HARIAN

Gomendio pedagogiko berezia:

Historia Linguistikoa. Amonarrirek proposatzen duen bezala, partekatu zuen seme-alabekin zuen historia linguistikoa.

Zergatik ikasi zenuten euskara?
Zergatik ez dakizue (oraindik) ondo?
Zergatik nahi duzue beraiek jakitea?

Zuen asmoak eta ilusioak partekatzeak hauraren motibazioa biderkatzen du. Hizkuntza "goxo ematea", maitasunari lotuta, epe luzerako bermerik onena da.

Ekosistema komunikatiboa: eskola, aisialdia eta kultura

Gaur egun "bidegurutze" soziolinguistiko batean gaude. 1980an gazteen %20ak soilik zekiten euskaraz; gaur egun, ezagutza ia unibertsala da gazteen artean. Hala ere, erabilera da gure erronka nagusia. Erabileran jauzia emateko, lau faktore hauek zaindu behar ditugu:

1. Familiaren babesa:

Gurasoen eredia eta konpromiso esplizitua.

2. Helduen arteko erabilera:


Zer ikusi, hura ikasi. Haurrak helduak euskaraz ikusten baditu, naturaltasunez egingo du berak ere.

3. Eskolaz kanpoko jarduerak:

Hauek euskaraz izan daitezen saiatu behar dugu, euskara aisialdiko eta emozioetako hizkuntza izan dadin.

4. Kultura-kontsumoa:

Pantailak, liburuak eta antzerkia. Euskal kultura kontsumitzeak hizkuntza-maila eta iruditegia aberasten ditu.





Guraso taldeen eta batzordeen **indarra**

Banakako lana kolektiboan indartzen da. Ikastoletako gurasoen euskara-batzordeak pieza klabeak dira gurasoen arteko sarea josteko, Amonarriek azaltzen duenez. Ez da soilik ekintzak antolatzea, mezu kolektibo bat bidaltzea baizik:

“Hau ez da inposaketa bat, gure komunitateak eta gurasook nahi dugun helburua baizik”.

Ekimen estraterjiko batzuk:

Harrera linguistikoa:

Kanpotik datozen familia berriei euskararen garrantzia eta gure ilusioa hurbiltasunez azaltzea, euskara integraziorako tresna dela erakutsiz.

Kantu saioak eta mendi irteerak:

Giro erdaldunetan “arnasgune funtzionalak” sortzeko.

Praktika-taldeak:

Gurasoen artean euskara praktikatzeko guneak, beldurrak alde batera utzita.



9 HARIAN

Erabaki kontzientea eta gozamena

Euskara transmititzea ez da inertziaz gertatzen den zerbait; gurasook modu kontzientean hartu beharreko erabakia da. Pazientzia eta denbora eskatzen du, baina gure seme-alabei bizitzarako baliabide paregabea eta ziurtasun-iturri indartsua ematen diegu. Haur bat bere “larruzal linguistikoan” eroso sentitzen denean, bere behar guztiak adierazteko gai denean, munduaren aurreko

segurtasuna irabazten du. Guraso agurgarriok, prozesu honen parte aktibo izatera eta euskara gozamenaz hartzera gonbidatzen zaituztegu. Estrategia eta azalpen sakonagoak bereganatzeko, Ikastolen Elkartaren youtube kanalean Paula Kasaresen eta Kike Amonarriren saio osoak ikustea gomendatzen dizuegu.



Biharko euskal hezkuntza, **gaurdanik ehuntzen**

Ikastolen mugimenduak gogoeta estrategiko sakona egin zuen Zazpigarren Batzarrean, eta bertan zehaztutako norabideak argi markatu du aurtengo ikasturtearen taupada. Ez gara etorkizunaren zain geratu; biharko euskal hezkuntza eta, hedaduraz, biharko Euskal Herria gaurdanik ehuntzen ari gara. Gure hezkuntza eredu propio, integral eta euskalduna iparrorratz hartuta, urrats irmoak egin ditugu erronka pedagogikoetan, euskararen biziberritzean eta Ikastola ereduaren jendarteratzean.

Biharko komunitatea hezten duen komunitatea gara Ikastolak, eta iparra ongi zehaztuta, elkarrekin norabide berean arraunean dihardugu, tokian tokiko errealitatek abiatuta, herriz herri ehuntzen ari gara Euskal Herri osorako gure proposamen partekatua.



Inklusioa eta eraldaketa, arlotan pedagogikoaren bihotzean

Aurtengo ikasturtean, inklusioa izan da gure gida-lerro pedagogikoetako langai nagusietako bat. Ikastolak pertsona guztientzako espazio seguru eta garatzaileak izatea ez da soilik hezkuntza-erronka bat, herri-kohesioari egiten diogun ekarpen zuzena baizik. Gai hau sakontasunez landu da aurtengo Jardunaldi Pedagogikoetan, eta hari berari tiraka aritu gara Zuzendarien mintegi nazionaletan ere.

Ikasle bakoitzaren aniztasunari behar bezala erantzuteko, Hezkuntza Marko Orokorren testuinguruan eta Pertsona Ereduan oinarrituta, Eraldaketa Pedagogikorako aholkularitza-zerbitzu berria jarri dugu martxan, ikastola

bakoitzari bere errealitatetik abiatutako bidelaguntza eskainiz. Aurten abitatutako ekimenak segida izango du datozen ikasturteetan.

Eraldaketa horren isla praktikoa da, halaber, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ONKI proiektuaren inplementazioarekin eman dugun pausoa. Pertsona osotasunean hezteko eta ikasleen ongizatea bermatzeko sortutako tutoretza-eredu eta programa berritzailea da ONKI, inklusioaren eta ekitatearen printzipioetatik eraikia. DBHn ezarria dagoeneko, heldu den ikasturtean ezarriko dugu Lehen Hezkuntzan.



Euskara eta euskal kultura biziberritzeko jauzia

Transmisioa ez da iraganeko kontua, etorkizuneko bermea baizik. Horregatik, *Piztu Plaza* egitasmoa mugarrizko izan da aurten: gure gazteak euskal kulturaren kontsumitzaile huts izatetik, aktore propio eta sortzaile izatera igaro dira. Euskarazko sormena eta adierazpena plazaratu ditugu, eskarmentu handiko sortzaileak ikasleen bidelagun jarri ditugu, eta gazteen ahalduzko sustatu dugu. Prozesuaren amaieran, berriz, euren sorturiko kultur adierazpenak eskaini dituzte gazteek, Arrasateko gune desberdinetan. Aurten ereindako hazia, datozen urteetan indar handiagoz loratu dadin lanean ari gara dagoeneko.

Horrekin batera, eskola-orduez haratago ere euskararen arnasmuneak bermatzeko asmoa biderkatu nahi izan dugu. Hezkuntza ez-arautuan euskarazko eskaintza indartu dugu aurtengo udako kanpaina, euskarazko plaza kopurua %40 handituz eta aitzindariak izan gara beka-sistema bat abiarazten, baliabide ekonomikoek ez dezaten inor

euskarazko aisialditik bazterrean utzi. Ildo berean, ikasleen arteko saretzea eta gozamina uztartu ditugu: *Non eta Mugan* ekimenak eta Bardeako bizikleta eta orientazio martxak arrakasta itzela izan dute Euskal Herri osoko gazteak euskaraz elkartzeko.

Azkenik, komunitatearen zutabe diren gurasoak ere erdigunean jarri ditugu. Paula Kasares eta Kike Amonarrizen eskutik, gurasoentzako formazio eskaintzaren lehen haziak erein ditugu, familiak ere ikastolen hezkuntza-proiektuaren parte aktibo eta formatu izan daitezzen.





Traben gainerik, sarea eta herria indartuz

Zailtasunak ez dira falta izan, baina oztopo bakoitza sarearen indarra erakusteko aukera bihurtu dugu. Nafarroan bizi dugun egoera konplexuaren aurrean, Nafarroako Hezkuntza Departamenduak gelak itxi nahi izan dizkigunean, Ikastolen sareak irmotasunez erantzun du, Nafarroa osoaren, kalitatezko hekuntzaren, sareen arteko berdintasunaren eta euskararen alde. Gure jarrerak eta ekimenak argi erakutsi dute proaktibotasunak emaitzak dakartzala: gu mugitu izanak, ezinbestean, ingurua eta erakundeak mugiarazi ditu, euskararen eta ikastolen defentsan eszenatoki berriak irekiz.

Ipar Euskal Herrian ere egoerak ekarpen irmoa eskatu du. Baxoa Euskaraz egiteko eskubide ukatuaren aurrean eta Frantziako administrazioak irakasle berrien kontratazioan Seaskari ezarritako mugen aurrean, komunitate osoa altxatu da, eta Frantziako Gobernu mugiarazi dugu. 2028rako Baxoaren hainbat alor euskaraz egin ahal izateko konpromisoa adierazi du Estatutak eta aurten ere matematikako azterketa euskaraz egiteak zigorrik ez duela izango adierazi digute. Eskubideak praktikan jarriz bihurtzen dira errealtate eta horren erakusgarri da Baxoa euskaraz egin ahal izateko urratzen ari garen bidea.

Kexatik haratago, ordea, alternatibak eraikitzen jarraitzen dugu. Heldu den ikasturtean Etxepare Lizeoan Lanbide Heziketako arlo berria martxan jartzea eta Donapaleuko lizeo berriaren oinarriak eraikitzen hasia dira Ikastolok Ipar Euskal Herrian dugun indarraren eta etorkizuneko proiektioaren frogarik onenak.

Komunitatea elikatzen eta saretzen

Ikasturtearen errepassoa ez litzateke osoa gure jaiek komunitategintzari egin dioten ekarpena aipatu gabe. Jai bakoitza —Kilometroak, Nafarroa Oinez, Herri Urrats, Ibilaldia eta Araba Euskaraz— euskararen eta auzolanaren erakusleho erraldoi izan da aurtengo ikasturtean ere. Elgoibar, Atarrabia, Senpere, Bilbo eta Amurrión, milaka herritarren bultzadak gure proiektu pedagogikoa ekonomikoki zein sozialki elikatzen lagundu du.

Eta etorkizunera begira, ezin aipatu gabe utzi datorren ikasturterako ilusioa: dagoeneko ari gara Kilometroak jaiaren 50. edizio bereziaren prestaketan. Ikasturte honetan ere izan ditugu ospakizun biribil horren inguruko hainbat ekimen. 50 ekitaldi, euskara, auzolana eta herria uztartuz, eta indartsu jarraitzen dugu.

Datorren ikasturteari ekiteko oinarriak jarriak ditugu, daukagun komunitate onenarekin. Euskal Herria euskaraz josten jarraitzeko.



SOLASEAN




14 SOLASEAN




kilometroak
Ibilian-ibilian, buelta!
Lazkao 2026



URRIAK 4

 LAZKAOKO IKASTOLA

 IKASTOLAK

kilometroak.eus





“Jaiak ‘gu’ bat eraikitzen du herrian, ikastolaren inguruan komunitatea josirik mantentzen du”

Aurten, Kilometroak jaiak 50. ekitaldia ospatuko du, eta Lazkaok hartuko du lekukoa. Ez da kasualitatea: izan ere, Lazkaoko eta Beasaingo ikastolek antolatu zuten lehen Kilometroak jaia. Mugarri berezi honen atarian, Irantzu Amundarain (Lazkaoko ikastolako lehendakaria) eta Aitor Elizaran (Kilometroak Kultur Elkarteko lehendakaria) elkartu ditugu, iraganaz, orainaz eta etorkizunaz hausnartzeko.

Lazkaoko ikastolan elkartu gara Irantzu Amundarain eta Aitor Elizaranekin. Kilometroak jaiari begira protokoloari dagozkion xehetasunak aztertzen aritu diren bileraren ostean elkartu ere. Urrun dirudien arren, ate joka ari baita dagoeneko Gipuzkoako ikastolen jai handia.

Lazkaoko eta Beasaingo ikastolak izan zineten 1977an lehen Kilometroak hura antolatu zenutenak. Zer sentitzen da “etxera itzultze” moduko honen aurrean? Irantzu, hasteko, nola bizi duzue ilusio eta erantzukizun hori?

Irantzu Amundarain: Arnas sakon bat hartzen dut galdera entzunda ere. Ilusioa? Ezin da neurtu. Baina erantzukizun puntu bat ere badu, noski. Lehenengo jaia gure eskualdean antolatu zen, eta orain, 49 urte geroago, gu izatea edizio borobil hori antolatzea... Zera sentitzen da: batetik, historia baten parte izatearen harrotasuna; eta, bestetik, gure aurrekoek utzitako ondarea duintasunez jasotzeko ardura. Herri txikia gara, baina ilusioz erraldoi. Eta uste dut jendea horretaz jabetzen ari dela, auzolaneko lehen egunetik suma daiteke energia berezi bat.

Aitor, Kilometroak Kultur Elkartetik, zer esanahi ematen diozue zuek ibilbide borobil honi?

Aitor Elizaran: Niretzat, ziklo baten itxiera borobila da, baina, aldi berean, atea zabaltzen duena. 1977an Kilometroak jaio zenean, jendartea eraldatzeko tresna bat zen, euskarari, herrigintzari eta ikastolei leku bat egitekoa. 50 urte beranduago, eraldaketa hori lortu dugun seinale da jaiak bizi-bizirik jarraitzea, baina, era berean, adierazten digu oraindik bide luzea dugula egiteko. Lazkaokoak lehenengoak izatea, eta orain 50. edizio honen antolatzaile izatea, poetikoa ere bada, baina ez patxadaz gelditzeko, baizik eta momentu hori baliatzeko atzera eta aurrera begiratzeko.

Ikastolak: Aitor, gizartea asko aldatu da 1977tik. Gaur egun, jendarte digital eta globalizatu batean, zeri kantatzen diote ikastolen jaien aldarriak? Zein mezu berritu behar diogu euskararen aldeko borrokari?

Aitor Elizaran: Galdera biribila, gakoa jotzen baitu. Ingurua aldatu da, bai, baina oinarrian, aldarri berari eusten diogu: bizitzaren esparru guztietan euskaraz bizi ahal izateko eskubideari. Alde instituzional batzuk aurreratu dira, baina ez gaitezen engaina: gure egunerokotasunean, kalean, pantaila aurrean, aisialdian... oraindik

minorizatutako hizkuntza gara eremu askotan. Lehen lekua eskatzen genuen, orain leku hori ez galtzea, zabaltzea eta erakargarria egitea aldarrikatzen dugu. Mezu berritu bat? Akaso, mundu globalizatu honetan, euskara komunitate itsasgarri bezala aldarrikatzea; hau da, euskara ez dela hizkuntza bat bakarrik, baizik eta elkar zaintzeko, elkar ezagutzeko eta jai egiteko modu bat. Kilometroak eta ikastolen gainerako jaiak hezur-haragizko komunitategintzarako espazioa dira: hemen ukitua, begirada, elkarrekin botatako izerdia... hori da gure manifestua.

“Kilometroak eta ikastolen gainerako jaiak hezur-haragizko komunitategintzarako espazioak dira: hemen ukitua, begirada, elkarrekin botatako izerdia... dugu; hori da gure manifestua ”

Irantzu, Lazkaotik, nola irudikatzen duzu jaialdi handi baten indar eraldatzaile hori? Egunerokoa ikastolan egiten duzuen lana, jaialdian modu kolektiboan plazaratzea al da?

Irantzu Amundarain: Halaxe da, bai. Guk ikastolan egunero egiten dugu euskararen eta herriaren aldeko bidea, isilean, gelaz gela, haur bakoitzarekin. Baina jaialdia kalean oihukatzea da, plaza hartzea da. Herri txikiak badu abantaila bat:

denok ezagutzen dugu elkar. Eta ikastola ez da eskola bat bakarrik, herriaren bihotza da. Kilometroak antolatzeak aukera ematen digu hori Gipuzkoa osoari, eta munduari, erakusteko: “Aizue, hemen herri txiki bat, baina euskaraz bizitzeko eta ikasteko amets erraldoi bat duena!”. Gure eguneroko lana, auzolanean ikusgarri egiten da, eta horrek indar sinestezina ematen du. 50. edizioak, gainera, bozgorailu handiagoa du; mezu hori urrunago entzungo da, eta ez dugu alferrik galdu nahi.



Auzolanaz ari garela, Irantzu, nola ari zarete Lazkaon komunitatea elikatzen? Herri txiki batean, denak aritu behar al du zerbaitetan? Nola lortzen da belaunaldi ezberdinen arteko transmisio hori?

Irantzu Amundarain: Hori da gure magia. Lazkaon, ikastola sortu zuten guraso haietako batzuk oraindik ondoan ditugu, eta hori altxor bat da. Haiek kontatzen dizkigute lehenengo jaien pasadizoak, izerdiak eta grinak. Belaunaldi berriek, berriz, freskotasuna eta ideia berriak ekartzen dituzte. Auzolana ez da derrigortasun bat, aukera bat da: hemen badakigu hau denona dela, eta denok dugula zerbait emateko. Ez da diru kontua, denbora eta talentu kontua baizik. Txosna batean sukaldari, dekorazioan artista, antolakuntzan kudeatzaile... Denek topatzen dute bere txokoa. Eta bai, herri txikia izanda, ia ezinezkoa da parte ez hartzea, baina inor ez da behartuta sentitzen; jendeak parte hartu nahi duelako egiten du, komunitate sentazio horrek berak deitzen zaituelako.



Aitor, zure ikuspegi zabaletik, Gipuzkoako gainerako herrietako ikastolak begira-begira egoten dira. Auzolan hori, herri bakoitzean pizten den sugar hori, beharrezkoa al da ikastola sarea indartzeko? Zergatik dira halako ezinbestekoak jai hauek ikastola baten bizitzan?

Aitor Elizaran: Erabat ezinbestekoak. Nik hiru zutabe ikusten dizkiot Kilometroak jaialdi bati, eta, hedaturaz, ikastolen aldeko jai guztiei. Lehena, ekonomikoa: ikastola batek dituen azpiegitura edo proiektu estrategikoei bultzada bat emateko diru-iturri garrantzitsua da. Baina beste biak, niretzat, garrantzitsuagoak dira. Bigarrena, pedagogikoa: ikasleek eta familiek urte oso batez proiektu komun bat dute, ikaskuntza prozesu oso bat egiten dute elkarlanean, eta hori ikasgela bezain garrantzitsua da. Eta hirugarrena, eta beharbada gakoa: identitarioa eta komunitarioa. Jaiak "gu" bat eraikitzen du herrian, ikastolaren inguruan komunitatea josirik mantentzen du. Sugar hori piztu gabe, ikastola askori arnasa hartzea kostatuko litzaieke. Jaiak ez dira ospakizun huts bat; ikastolaren osasun termometroa eta motorra dira aldi berean.

Badira ahots batzuk diotenak agian jaialdi handi hauek antolatzeko modu zaharkitua dela, neke handia eragiten duen esfortzua eskatzen dutela... Zergatik da beharrezkoa oraindik milaka lagun biltzea, eguraldi ona desiratzea, eta giza kate bat osatzea? Irantzu, "merezi du" esaten duzunean... zerk ematen dizu arrazoia?

Irantzu Amundarain: Nekea? Noski, sekulakoa. Baina ikusten duzu herria mugitzen, aurpegiak irribarrez, eta ahaztu egiten duzu. Gaur egun dena da azkarra, digitala, banakakoa... Guk kontrakoa proposatzen dugu: geldia, ukigarria eta kolektiboa. Proposatzen dugu gure aiton-amonek euren alea jartzen dutela bere bilobaren ikastolaren alde, proposatzen dugu gazte batek asteburua ematea jairako euskarriak margotzen, eta pozik egitea. Horrek ez du preziorik. Balio batzuen eskola erraldoi bat da Kilometroak. Norbaitek zaharkitua irizten badio, gonbidatuko nuke urriaren 4ean Lazkaora etortzera, eta begira dezala inoren begietara. Erantzungo diote.

Eta Aitor, instituziotik, ikastolen jaien ekosistema osoa beharrezkoa dela nola defendatzen duzu?

Aitor Elizaran: Datuekin eta emozioekin. Datuak: ikastolen jaien mugimenduak milaka boluntario mobilizatzen ditu urtero; zortzi mila boluntario inguru, atera kontuak! Diru-sarrera propioak sortzen ditu ikastola bakoitzak bere autonomia indartzeko, eta euskal kulturaren



eta hizkuntzaren aldeko ekitaldirik jendetsuenak izaten jarraitzen dute. Baina emozioekin: galdetu iezaiozue Lazkaon, Elgoibarren, Oñatin, Oreretan... inoiz parte hartu duen edozeini. Esango dizute haien bizitzako esperientzia ahaztezinetako bat izan zela. Instituzio bezala, guk ondare hori jaso eta hurrengo belaunaldiei transmititu behar diegu. Ezin dugu utzi galtzen herri bat batzen duen eta hizkuntza baten aldeko hauspo den tresna bat. Ez da zaharkitua, eguneratua baizik: gaur egungo erronketara egokitzen ari da, jasangarritasuna, parekidetasuna, inklusioa txertatuz. Bihotza, ordea, bera da.

50. edizio honetara etorrita, Irantzu, zer aurkituko du bisitariak Lazkaon, beste urte batzuetan ikusi ez duenik? Ba al da "Lazkao ukitu" berezirik?

Irantzu Amundarain: Guk nahi dugu bisitaria herrian murgiltzea, ez pasatzea bakarrik. Ibilbidea herrigunean bertan egituratu dugu, txoko esanguratsuak zeharkatuz, eta arreta berezia jarri dugu memoria eta transmisioa uztartuko dituzten guneetan. Esaterako, "Lehenengo Kilometroen" gune bat izango dugu, duela 50 urteko argazki eta testigantzekin, eta ondoan, gaztetxoek egindako etorkizunari buruzko mural bat. "Lazkao ukitua" ez da gauza fisiko bat, akaso, giro bat da: zerbait txikia eta handia aldi berean izatearen sentsazioa. Abestia bera ere oso "lazkaotarra" da, Amaia Agirrek ederki lotu ditu abestian "antzarra ari da karraka", "Lazkao Txiki", "enparantza"... bezalako hitz jokoak. Bisitaria, bestalde, ez da etorriko kontsumitzera, ospakizunaren parte izatera baizik. Gurekin bazkaltzera, gurekin abestera, gurekin euria egiten badu bustitzera ere.



“Auzolana ez da derrigortasun bat, aukera bat da: hemen badakigu hau denona dela, eta denok dugula zerbait emateko. Ez da diru kontua, denbora eta talentu kontua baizik”

50. edizio honetara etorrita, Irantzu, zer aurkituko du bisitariak Lazkaon, beste urte batzuetan ikusi ez duenik? Ba al da “Lazkao ukitu” berezirik?

Aitor Elizaran: Hasteko, Kilometroak egunean bertan, denboraren tunel bat irudikatuko dugu ibilbidean, sei hamarkadako ibilbidea azaltzeko. Lehenbiziko bostak, egindako bidearen isla izango dira, eta seigarrena, etorkizunari begirakoa. Ikastolen jaien urtea amaituta, berriz, beste garapen bati ekingo diogu, hiru hankako proiektu batekin. Alde batetik, erakusketa ibiltari bat,

Gipuzkoako ikastolen jaien historia kontatuko duena, baina, batez ere, istorioak kontatuko dituena. Bigarrenik, unitate didaktiko bat, ikastoletan bertan lantzeko, umeek eta gazteek uler dezaten zer eta zertarako diren ikastolen jaiak, eta batez ere, zergatik den garrantzitsua komunitatean parte hartzea. Eta hirugarrenik, bukaeran, ekitaldi sozial handi bat egingo dugu, esker onez, baina baita begirada aurrera jarritz. Gure nahia da hau guzti hau materia bizia izatea. Ikastolen jaien txinparta ez da itzali, eta erakusketa eta material hauek sugarra piztuta mantentzeko modu bat dira.



Urriaren 5ean, jaiaren biharamunean, eta nekea gaindituta, Irantzu, zer nahiko zenuke esatea edo pentsatzea Lazkaoko herritar eta boluntario bakoitzak?

Irantzu Amundarain: Bi hitz: "Eskerrik asko" eta "Harro egoteko modukoak gara". Nahi nuke herritar bakoitza, parte hartu duen haur, gazte zein nagusi, bere ohera sartzea pentsatuz: "Guk, Lazkao bezalako herri txiki batek, lortu dugu. Historiari gure aletxoak jarri diogu, euskarari arnasa eman diogu, eta elkarrekin egin dugu". Eta biharamunean, nekea irribarre bihurtzea. Memoria horrek urteetan irautea.

Eta zuk, Aitor, etorkizunari begira, zer eskatu nahi zenieke 50 urteko ondare hau oinordetzan hartuko dutenei?

Aitor Elizaran: Ausardia. Ez dezatela beldurrik izan oinordetza hori hartu eta euren garaira egokitzeko. Gure aurrekoek egoera askoz gogorragoetan ausartak izan ziren ikastolak sortzen eta jaialdi hauek antolatzen. Orain belaunaldi berriei tokatzen zaie amets egiten jarraitzea. Nahi nieke esan jakin dezatela ondare honek ez dituela kateak jartzen, hegoak ematen dizkiela. Eta gogora dezatela beti: Kilometroak ez da kontsumo jaialdi bat, konpromiso ekitaldi bat da. Eta konpromiso horretan aurkituko dutela, beti, komunitate baten goxotasuna eta hizkuntza baten indarra.

Buka dezagun bakoitzaren hitz batzuekin. Irakurtzen gaituenarentzat, zergatik da oraindik Kilometroak amets bat?

Irantzu Amundarain: Kilometroak amets bat da, amets kolektibo bat delako. Zuk bakarrik ezin duzu egin. Besteekin amesten duzunean, lortzen duzu. Eta amets horrek euskaraz hitz egiten du. Horregatik da hain ederra.

Aitor Elizaran: Kilometroak amets bat da, erakusten duelako herri txiki batek, gogoz eta ilusioz, bere etorkizuna idatz dezakeela. Eta erakusten duelako etorkizun hori hobea dela euskaraz eta komunitatean egiten denean. Amets horrek merezi ditu 50 urte, eta beste 50 gehiago, gutxienez.



Ander Deuna Ikastolako gazteek Etikasi 2026 saria irabazi dute "Eskutitza" abestiarekin

Ander Deuna Ikastolako 1. Batxilergoko ikasleek lehenengo postua eskuratu dute Etikasi 2026 proiektuan, "Eskutitza" izeneko abesti eta bideoklip hunkigarri batekin. Garaipen honek ikasleek eta irakasleek egindako lan bikaina aitortzen du, memoria historikoa eta gaur egungo erronka etikoak maisuki uztartu baitituzte.

Proiektuaren muina giza eskubideen defentsa da. Sortutako abestiaren bidez, ikasleek historian zehar gertatutako zapalkuntzak gogora ekarri dituzte, hala nola faxismoa, nazismoa eta Euskal Herriak jasandako diktadura. "Eskutitza" lanak askatasuna "opari bat" dela nabarmentzen du eta memoriaren garrantzia aldarrikatzen du, historiak bere eragina gal ez dezan. Abestiak, gainera, gaur egungo munduko gatazkekin lotura egiten du, Palestinako egoera aipatuz eta mundua ezabatu nahi duten indarren aurrean adi egoteko deia eginez.

Arrisku digitalak eta gaur egungo erronkak

Ikasleek giza eskubideen urraketak ez dituzte soilik iraganean kokatu. Proiektuak mugikorren bidez jasotzen diren mezuen arriskua identifikatzen du, pentsamendu totalitaristak eta diskriminatorioak digitalki gazteengana iristeko bide berriak erabiltzen ari direla ohartaraziz. Testuinguru horretan, "kontzientzia berpiztea" eta gertatzen ari dena identifikatzea funtsezko helburutzat markatu dute.





Saria: Auschwitzera bisita hezitzailea

Irabazle izateagatik, ikasleek Poloniara bidaia hezitzaile bat egiteko aukera izango dute. Auschwitzeko kontzentrazio-esparrua bisitatuko dute, etikari eta giza eskubideei buruz lehen eskutik ikasteko. Bisita honen bidez, indarkeria politikoak utzitako ondorioak aztertuko dituzte, bizikidetza erronka gisa ulertuz, bai tokiko mailan zein maila globalean.



Zer da Etikasi?

ETIKASI giza eskubideetan eta etikan oinarritutako hezkuntza-programa bat da, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzak bultzatuta. Helburua gazteek "etika ikasi" eta giza eskubideei buruz ikastea da, bakea, aniztasuna eta elkartasuna sustatuz.

Programak esperientzia hezigarriak eskaintzen ditu, besteak beste, gatazka historikoak eta giza eskubideen urraketak izan diren lekuak bisitatzuz.

Horrela, parte-hartzaileek beste pertsonen lekuan jartzeko eta enpatia garatzeko aukera dute, gizartean bizikidetza hobetzeko hausnarketa eginez.

Gainera, esperientzia horiek aurretik prestakuntza eta ondoren gogoeta lanak egiteko prozesuarekin osatzen dira.



Euskal Herriko ikastoletako 345 ikasle, Bardeetako XX. Orientazio eta Bizikleta Martxan

Bi egunez, ikasleek orientazio-jarduerak, txirrindularitza eta elkarbizitza sustatzeko hainbat ekintza egin dituzte

Maiatzaren 7an eta 8an, Euskal Herriko hamar ikastolako DBHko 3. eta 4. mailako 345 ikaslek parte hartu dute Bardeetako Orientazio eta Bizikleta Martxaren XX. edizioan, Tuteran eta Bardeetan erdigune izan dituen egitasmo pedagogiko eta ludikoan. Ekimena Argia Ikastolak, Ikastolen Elkarteko Zirimola Ikastolen Aisialdi Taldeak eta parte hartu duten gainerako ikastolek elkarlanean antolatu dute..

Bi egunez, ikasleek orientazio-jarduerak, txirrindularitza eta elkarbizitza sustatzeko hainbat ekintza egin dituzte, ikastolen hezkuntza-proiektuaren balioekin bat eginez: euskara, euskal kultura, autonomia, osasuna eta lankidetzeta. Parte-hartzaileak Fontellaseko **Argia Ikastolatik**, Lizarrako **Ikastolatik**, Berako **Labiaga Ikastolatik**, Atarrabiako **Paz de Ziganda Ikastolatik**, Etxarri Aranazko **Andra Mari Ikastolatik**, Altsasuko **Iñigo Aritza Ikastolatik**, Tafallako **Ikastolatik**, La Pueblako **Assa Ikastolatik**, Tolosako **Laskorain Ikastolatik** eta Oiongo **San Bizente Ikastolatik** etorri dira.





Egitasmoa aurrera ateratzeko, ezinbestekoa izan da parte hartu duten ikasletoetako irakasle eta hezitzaileen lana, **Argia Ikastolako familien** inplikazioa eta Zirimola Ikastolen Aisialdi Taldearen koordinazioa. Antolakuntzak nabarmendu du **ekimenak lankidetzazare zabal baten indarra erakutsi duela**, eta ikastolen arteko elkarlanari esker posible izan dela hain esperientzia aberasgarria gauzatzea.

Jardueretan zehar, **ikasleek orientazio-gynkana, kalejira, dantza-saioak eta bizikleta-martxa egin dituzte, eta hainbat eduki pedagogiko ere landu dituzte** ikastola bakoitzean aurrez eta ondoren: gorputz hezkuntza, euskara eta euskalkiak, transhumantziaren gaineko azalpena, besteak beste. Horrela, **kirola, kultura eta jakintza uztartzen dituen proposamen integrala osatu da.**

Bizikleta-martxan, 18 talde ingurutan antolatuta, 32 kilometroko ibilbidea osatu dute, Bardeetako paisaia eta ondare naturala ezagutuz. Egitasmoak antolakuntza logistiko zabala ere eskatu du –8 autobus, 3 kamioi, 8 furgoneta, 2 anbulantzia, 100 kg fruta, 250 ur litro–, eta egunez eguneko segurtasuna eta zaintza bermatzeko baliabide ugari mobilizatu dira.

Bardeetako Orientazio eta Bizikleta Martxak berriro erakutsi du ikastolen mugimendua gai dela hezkuntza-esperientzia aberasgarriak sortzeko, euskaratik eta elkarlanetik abiatuta. Ikasleek bizikletan, oinez eta taldean bizitako egunak **ikaskuntza, harremanak eta herri ekimena uztartu ditu**, eta balio horiek guztiak eguneroko hezkuntza-praktikara eramateko aukera eskaini du.



Pagola, ikastolazalez beteta

Tulalaika jaiaren bosgarren aldia ospatu dute Xiberoko ikastolen eta Manex Erdozaintzi Kolegioaren alde

Iragan maiatzaren 24an, igandearekin, Pagola euskal kulturaren eta herri ekimenaren hiriburu bilakatu zen Tulalaika jaialdiari esker. Arozeko Basabürüa ikastolak, Sohütako Eperra ikastolak eta Larzabaleko Manex Erdozaintzi Etxart kolegioak elkarlanean antolatutako festa ehunka herritar bildu zituen, ikastolen hezkuntza-eredu propioa ikusgarri eginez eta Zuberoan euskarari eta euskal kulturari bultzada berri eta indartsu bat emanez.

Egun osoko egitarau oparo bati esker, **Tulalaikak argi utzi du ikastolen mugimendua bizirik, gertu eta elkarlanean ari dela Ipar Euskal Herrian.** Goizeko 10:30etan merkatuko postuen irekierarekin hasi zen festa, eta bertan tokiko produktuak eta ikastolen aldeko ekoizpenak eskuratzeko aukera izan zen. Ondoren, plazan egindako pilota eta herri-kirol erakustaldiek, bertsolariek, dantzariak eta herri-bazkari jendetsuak komunitatearen arteko loturak estutzeko balio izan zuten, belaunaldi ezberdinetako euskaltzaleak mahai beraren inguruan bilduta.





Jaialdiak helburu estrategiko argia zuen: **Zuberoako ikastolen eta Lartzabaleko kolegioaren lana plazara ateratzea eta euskara eremu publikoan naturaltasunez bizitzea.** Antolakuntzatik adierazi dutenez, jaialdiaren arrakastak agerian uzten du herri ekimenetik sortutako hezkuntza eredu integral eta inklusibo honek Ipar Euskal Herrian duen babes sozial handia eta etorkizuneko erronkei heltzeko duen indarra.

Arratsaldean musika eta dantza izan ziren nagusi, giro ezinhobean. Niko Etxart eta Hapa Hapa, RTZ, Xabi Solano, Xistor Of A Down eta DJ Infernu, igo ziren taula gainera. Egunean

zehar, presente egon ziren, halaber, Baxoa euskaraz egiteko eskubidearen aldarrikapena, eta heldu den sartzarako Seaskako ikastolek behar dituzten irakasle gehiagoren beharra asetzeko eskaera.

Tulalaika ez da festa soil bat izan; gure hizkuntza eta kultura transmititzeko, eta, batez ere, **komunitate gisa elkarrekin gozatzeko erakusleiho bikaina izan da.** Pagolako hitzorduak erakutsi du, beste behin ere, ikastolak gizarte eragile aktibo eta ezinbestekoak garela euskara biziberritzeko bidean.



Birziklanet, teknologia berrerabiliz elkartasuna saretzen duen proiektua

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketak sustatutako **Birziklanet proiektuak teknologia**, hezkuntza eta elkartasuna lotzen ditu ekimen praktiko eta eraldatzaile batean. **Mikroinformatika Sistemak** eta **Sareak zikloko ikasleek**, irakasleen laguntzarekin eta Elkartenetekin elkarlanean, enpresa zein partikularrek dohaintzan emandako gailu elektronikoak berrerabili eta beharra duten erakunde eta komunitateetara bideratzen dituzte.

Ekimenak ekonomia zirkularra du oinarri, eta ikasleek ordenagailu, inprimagailu eta bestelako gailuei bigarren bizitza bat emateko prozesu osoa lantzen dute: azterketa, prestaketa eta erabilerarako egokitzapena. Arizmendi Ikastolaren **Ferixalekuko BPZ Berrerabiltze** eta **Prestakuntza Zentroa** da lan horren erdigunea, eta ikastolak bisita pertsonalatuak ere eskaintzen ditu bere guneak ezagutzeko.

Proiektuak saretze zabala lortu du, bai tokiko erakunde eta kooperatiben babesarekin bai gailu-dohaintzak egin dituzten enpresa, hezkuntza-eragile eta osasun-sistemako hainbat erakunderen ekarpenarekin. Arizmendi Ikastolak nabarmendu du elkarlan horrek posible egiten duela teknologia baliabide gutxiago dituzten herrialde eta kolektiboetara eramatea.

Saharako errefuxiatu-esparruetan, Birziklanetek urrats esanguratsua egin du: Fronte Polisarioarekin elkarlanean egindako bidalketei esker, datorren ikasturtean Lehen Hezkuntzan "Informatika" irakasgaia txertatzea lortu da, eta, aldi berean, irakasleen prestakuntza lantzen ari dira digitalizazioa benetan errotzeko. Dagoeneko **150 ordenagailu eta 20 inprimagailu** baino gehiago iritsi dira Tindufeko eskoletara.





Mugak gainditzen dituen elkartasun horrek beste hainbat lurraldetan ere izan du eragina. Senegalgo M'bame eta Gandiol herrietara ehunka gailu bidali dira hezkuntza digitala indartzeko; Brasilen 15 eramangarri prestatu dira MSTren eskola ibiltari baterako; eta Ghanan 19 ordenagailu bideratu dira. Horrez gain, tokiko hainbat elkarteek ere jaso dute laguntza, hala nola Zehar Errefuxiatuak, Euskal Herriko euskara elkarteek, Zaporeak, Seaska, Caritasek eta EKIN Emakumeak erakundeek.

Arizmendi Ikastolak dio Birziklanet **ez dela soilik gailuak berrerabiltzeko ekimena:** ikasleak protagonista dituen hezkuntza-esperientzia ere bada, gizarte-eraldaketa, jasangarritasuna eta elkartasuna uztartzen dituen.



MAKUSi

Go!
guzen

Denboraldi guztiak
ikusgai, **MAKUSi**n!



UME ETA GAZTETXOENTZAKO EDUKIAK, **EUSKARAZ!**

Jaitsi gure app-a!

 App Store

 Google Play



MAKUSi kluba

**KIDE EGIN
ABANTAILA ESKLUSIBOEZ
GOZATZEKO**



@makusi_eus



makusi.eus/kluba



HITZ ETA JOLAS OPORRETAN

Ikasturtea amaitzear dago, eta udak beste erritmo bat ekarriko du etxeetara: denbora gehiago elkarrekin egoteko, jolasteko, kontatzeko eta entzuten jarraitzeko. Baina oporrak ez dira etenaldia soilik; ikastolan ikasitakoa bizitzen eta praktikan jartzen jarraitzeko aukera ere badira. Horregatik, ikastolak aldizkaritik proposamen sortu bat dakargu, hitza eta jolasa uztartuz, familiek eta hurrek euskaraz gozatzen jarrai dezazuen.

Uda ere bada euskararekin harremana indartzeko une egokia: ahozko transmisioa, irudimena, eta etxeko zein ikastolako hizkuntza-ohiturak elikatzeko garaia. Garrantzitsua da, halaber, hurrek ez soilik ikasi, baizik eta bizi dezaten euskarazko jolas eta kontaketa-giro hori, askotariko adinetara eta errealitateetara egokituta. Hori da proposamen hauen oinarri nagusia: **ikasitakoa oporretara eramatea.**

Lula unibertsoa

Ikastolen Elkartearen apustu nagusietako bat da **Lula Otsoaren unibertsoa**. Euskal Herriko sortzaileek egindako 10 albumeko bilduma honek (Xabier eta Martin Etxeberria idazleek eta Aritz Trueba ilustratzaileak ondua) **ikuspegi pedagogiko aberatsa du**. Irakurzaletasuna sustatzeaz gain, familiei **gure euskalkien aniztasuna, aberastasuna eta ahozkotetasuna lantzeko aukera** paregabea ematen die, laguntasuna jorratuz eta estereotipoak deseginez. Istorio hauek, gainera, ez dira soilik irakurtzeko bilduma bat: entzun, kontatu, errepikatu eta jolasteko gonbita ere badira.

Lula Otsoaren unibertsoa istorioek laguntasuna, **aniztasuna eta estereotipoak desegitea jartzen dituzte erdigunean**, eta hori guztia euskaraz eta Euskal Herrian sortutako lanean oinarrituta dator. Hori oso baliagarria da oporraldirako, etxean zein lagunartean ahoz kontatzeko, esaldiak errepikatzeko eta istorioak familiako hizkera propioetara ekartzeko. Haurrek entzule izateaz gain, kontalarien papera hartzeko aukera ere badute, eta horrek konfiantza, sormena eta hizkuntzarekiko atxikimendua indartzen ditu. **Une honetan bildumako lehen bi ipuinak daude eskuragarri: Bakarrik eta Adiskideak**.

Ahozkotetasun tailerra

Lula Otsoaren unibertsoa, Ikastolen Elkartearen apustu nagusietako bat dela esan dugu lehen ere. Horren adierazle da ipuin bilduma ahozko komunikazioa lantzeko eta jendaurrean

aritzeko trebetasunak sustatzeko baliabide gisa ere erabili nahi dela.

Lula otsoaren inguruan ahozkotetasun-tailerak prestatzen aritu gara. Beronek aukera ematen du ipuin-kontaktaren estrategiak lantzeko.

Dorleta Kortazar ipuin-kontalariak gidatuko saioak proposatzen ditugu, **11-12 urteko gaztetxoentzat**. Tailerlean, gaztetxoek ahozko komunikazioa, jendaurrean aritzea eta ipuina egituratzeko tresnak landuko dituzte, eta gero beraiek bihurtuko dira kontaketa-lanaren protagonistak. Hurrengo pausoa are adierazgarriagoa da: **ikasitakoa praktikan jarri, eta 8-9 urteko ikasleei Lula otsoaren albuma kontatzea**.

Proposamen horrek adin tarteen arteko elkarlana eta transmisioa bultzatzen ditu, gazteagoak entzule eta nagusiagoak eredu bihurtuta. Zurriola Ikastolan frogatu ondoren, datorren ikasturtean ikastola guztiei eskainiko zaien ekimena da, eta horrek erakusten du formatuak baduela hezkuntza-balio argia eta parte-hartze handiko aukera. Uda aurreko eta ondorengo uneetan erabil daitekeen baliabide bizia da, familietan eta ikastolan bertan **hizkuntza-praktika aktiboa sustatzeko**.



Dorleta Kortazar
ipuin-kontalaria





Kilimak eta Kili-kili

Oporretan ere ikasten jarraitzeko modu erraz eta atsegin bat da Kilimak koaderno jostagarriak erabiltzea. Ikaslekarrek sortutako koadernoek jolasaren eta ikaskuntzaren arteko zubia egiten dute, 6-12 urteko haurrei zuzenduta. Haurren jakin-mina piztea eta irudimena lantzea dute helburu, eta oporretako errutinan txertatzeko oso egokiak dira.

Kilimak-en ondoan, Kili-kili ipuin jostagarriak ere badira, 4-6 urteko txikiak pentsatuak, eta jolaserako nahiz familian partekatzeko moduko formatuan sortuak. Bi proposamen horiek aukera ematen dute haurrak autonomiaz aritzeko, baina helduen laguntzaz ere bai, oporretako une lasaietan. Horrela, liburua ez da bakarrik irakurtzeko objektua: jarduera partekatua bihurtzen da, eta etxean euskarazko denbora sortzeko tresna.



Argitxo Margotzen

Eta txikiak sormena landu dezaten, marrazkia eta jarduera sinpleak uztartzen dituen Argitxo Margotzen liburuxkak prest daude oporretako egunak kolorez janzteko, gure pertsonaia maitatua gertuago sentituz.



Jokoak eta jolasak

Ikastolen Elkartearen joko eta jolasen eskaintzak ere badu udarako bere txokoa:

Argitxo kartak: Argitxoren unibertsoan oinarritutako karta-jokoa.

Asmatu baietz: 50 kartako sorta, aktibitate anitzekin, eta 10 kartako joko bat zailtasun eta ordenarekin. Hareazko erlojua ere badator.

Ohianeko Kriseilua: Ipuin-puzlea. 6 piezako 4 puzleaz osatutako istorioak (Triku, Azeri, Urtxintxa, Hontza). Bi modutan jolasteko: proposatutako ordenan 4 istorioak osatu, edo ordena propioan ipuin berriak sortu. Bizikidetzaz, sormena eta esperimendazioa lantzen ditu.

Zazpiak bat: Memoria-jolasa bikoteak bilatzeko, oroimena lantzeko. Familian, lagunekin nahiz ikasgelan dinamika parte-hartzaileak sortzeko.

Horrek guztiak erakusten du jolasak ez duela aisialdia bakarrik eskaintzen: hizkuntza, arreta eta partekatutako esperientzia ere lantzen ditu. Udako planetan, gainera, oso erraza da jolas hauek familian txertatzea: mahai inguruan, bidaian, lagunartean edo arratsalde lasaietan.

Hurrek arauak ulertu, txandak errespetatu eta euskaraz komunikatu behar dute, eta horrek hizkuntza modu naturalean erabiltzen laguntzen du. Jolas bakoitzak bere adin gomendioa eta erabilera propioa ditu, eta hori ere kontuan hartzekoa da familiak bere neurrira aukeratu ahal izateko.





Gure ikasleen ahotan



ONINTZA OIARTZABAL

Gastronomia eta Sukaldaritzako Arteen
Gradua, 4. maila

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Txikitatik Oiartzunen ikasi dut, Elizalde Herri Eskolan eta gero IES Xabier Zubiri Manteon. Pertsona alaia, langilea eta kuriooa naiz. Kirola, mendira joatea, lagunekin egotea eta sukaldatzea gustatzen zaizkit.

Zergatik aukeratu zenuen Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Batxilergoan zientzien arloan nengoen, baina sukaldaritza ere asko gustatzen zitzaidan. Lagun baten bidez gradua ezagutu nuen eta zientzia eta zaletasuna uztartzen zituela ikusi nuen. Horregatik erabaki nuen Basque Culinary Center-en ikatea.

Nola baloratuko zenuke orain arteko esperientzia?

Oso esperientzia ona izan da. Asko ikasi dut bai profesionalki bai pertsonalki: praktikak egin, ingelesa hobetu eta komunikazio gaitasunak landu ditut. Urte hauetan asko hazi naiz.

Nola definituko zenuke BCCn jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Metodologia oso praktikoa eta dinamikoa da. Profesionalen hitzaldi ugari izaten ditugu, talde-lan handia egiten da eta gastronomia ikuspegi askotatik lantzen da. Horrek sektoreko aukera asko ezagutzeko aukera ematen du.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Gehien gustatzen zaidana gastronomiak egunerokoan duen garrantziaz jabetzea da. Gainera, graduak irteera profesional ugari erakusten ditu eta sektoreko jendearen pasioa eta esfortzua gertutik ikusten dira.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Momentuz ikerketa munduan jarraitzeko interesa dut, nahiz eta oraindik ez dudan guztiz argi nire etorkizuneko bidea. Graduak aukera profesional asko eskaintzen ditu eta hori abantaila handia dela iruditzen zait.

